

Mondragon Unibertsitateak XX CNIM biltzarrean parte hartu du Malagan ua kongresua

2014/11/19

Helburua parte hartzaile kopururik handiena elkartzea izan da, beraien ikerketa lanen azken nobedadeak aurkeztu ahal izateko eta, aldi berean, parte hartzaileen artea proiektuak eta esperientziak trukatzeko ere balio izan du.

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko hainbat irakasle eta doktoregaik guztira 6 ponentzia aurkeztu dituzte Ingeniaritza Mekanikoko Estatuko XX. Biltzarrean (CNIM), oraingo honetan Malagako Unibertsitateko Ingeniaritza Mekanikoko Arloko IMMA Taldeak antolatuta.

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Ingeniaritzako eta Goi Mailako Prestakuntza Zikloetako irakaslea den Done Ugarte "F53aren mekanizagarritasun azterketa" aurkeztu zuen, Goi Mailako Prestakuntza Zikloetako zentroentzat egindako berrikuntza proiektu baten esparruaren barruan.

Pedro Arrazola Errendimendu Handiko Mekanizazioaren ikerketa taldeko koordinatzailea da, eta Mikel Cuestak eta Irantzu Sacristanek aurkeztutako 2 lanetan lankidetzan aritu da.

Mikel Cuesta doktoretza egiten ari da Errendimendu Handiko Mekanizazioaren ikerketa taldean, eta INCONEL 718 zulaketaren gainazalaren integritateari buruzko Monitorizazioan eta azterketetan egindako azken aurrerapenak azaldu zituen.

Irantzu Sacristan doktoretza egiten ari da Errendimendu Handiko Mekanizazioaren ikerketa taldean, eta "TI-10V-2FE-3AL eta TI-6AL-4V aleazioen mekanizagarritasunaren eta karakterizazio mekaniko, kimiko eta mikroestruturalaren arteko korrelazioari buruzko azterketa" aurkeztu zuen.

Aitor Arana doktoretza egiten ari da Diseinu eta Mekanika Estrukturalaren ikerketa taldean, eta bere aurkezpenaren gaia izan zen "Engranaje zilindriko zuzenen eraginkortasun iragartzeko ereduaren analisi zenbakizkoa".

Mikel Izquierdo doktoretza egiten ari da Diseinu eta Mekanika Estrukturalaren ikerketa taldean, eta bere ponentziaren gaia izan zen "Mcpherson suspentsio baten analisi zinematikoa eta dinamikoa "Quarter Car"-en".

Amaia Gomendio Ruiz, berriz, Industria Ingeniaritzako irakaslea da, eta azaldu zuen lana izan zen "Stirling motor baten diseinua eta fabrikazioa PBL metodologiaren bitartez", Mondragon Unibertsitateko Goi Eskolako Politeknikoko Industria Ingeniaritzan ikasteko erabiltzen diren metodologia aktiboetako buruz. Ponentzia horretan Industria Ingeniaritzako Masterreko bi ikasle ere parte hartu zuten: Ricardo Antonio Velasquez Bravok eta Fermin Gutierrez Larrayozek.

